



2011/2012 IKASTURTEAN ORDEZKAPENAK EGITEKO HAUTAGAIEN BEHIN-BETIKO ZERRENDAREN, 2011ko ABUZTUAREN 8an ARGITARA EMAN ZENAREN, ALDAKETA.

Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2011ko ekainaren 10eko ebazpenaren bidez argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko hautagaien behin-betiko zerrenda.

2011ko uztailaren 27an eman da argitara 2011/2012 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaien behin-betiko zerrenda, haren kontra jarritako gorako errekurtsioak berrikusi ondoren.

Egiaztatu denez, zenbait kasutan akatsak izan dira zerrendan eta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak emandako erredakzioan, 105.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2011ko abuztuaren 8an zuzendu ziren 2011/2012 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaien behin-betiko zerrendaren, 2011ko uztailaren 27an argitara emandakoaren, akatsak.

Zuriñe Segurola Gómez eta M^a Felisa López Pro andreek ordezkapenak egiteko hautagaien behin-betiko zerrendaren, 2011ko ekainaren 10eko ebazpenaren bidez argitara emandakoaren, kontra jarritako gorako errekurtsioak aintzat hartu izanaren eta Jesús Antonio Beriain Eciolaza jaunari irekitako diziplina-espediterearen ondorioz, ondorengo terminoetan aldatzen da 2011ko abuztuaren 8an argitara eman zen ordezkapenak egiteko hautagaien behin-betiko zerrenda:

- **Zuriñe Segurola Gómez andreari** emandako ordena-zenbakia eta puntuazioa aldatzea. Guztira **15,25 puntu** izango ditu jarraian adierazten diren espezialitateetan. Gainera, bakoitzean izan behar duen ordena-zenbakia adierazten da:

Espezialitatea	Ordena Araban	Ordena Bizkaian	Ordena Gipuzkoan
1541 Administrazio-Kudeaketako Prozesuak	356	443	406
1542 Merkataritza-Prozesuak	349	434	392

- **M^a Felisa López Pro andreari** emandako ordena-zenbakia eta puntuazioa aldatzea. Guztira **23,50 puntu** izango ditu jarraian adierazten den espezialitatean eta, gainera, izan behar duen ordena-zenbakia adierazten da:

Espezialitatea	Ordena Araban	Ordena Bizkaian
0951 Lehen Hezkuntza	1268	2350

- Diziplina-espedientea betez, **Jesús Antonio Beriain Eciolaza jauna** zerrendetatik kentzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 16a